

## ZER DAKARKIO HIRIART-URRUTIK EUSKAL KAZETARITZARI?

*Xabier Altzibar*

Atzeraturik gabiltza gure idazle kazetari zaharren ezagutzan. Gaitz erdi jakingura ernatuxe bada azken urteetan, zeren, oraindik ere, batean euskal kazetaritza zaharrak ez daukala ia ezer erakustekorik, bestean “tradizio urria” dugula... eta zer ez dugu aditzen? Ezagutzen ez dituztenek Hiriart-Urruti, J. Etxepare, B. Adéma, d’Abbadie, J. Saint-Pierre, *Zerbitzari*, *Otsobi*, *Kirikiño*, *Lizardi*, *Larreko*, *Manezaundi*, Lafitte etab. hobe lukete tradizio horretako zerbait irakurri, adibidez Klasikoak (Euskal Editoreen Elkarte) bildumako liburuak, bestela ezjakintasunaren eta alferkeriaren sasitzak estaliko du urte luzetan langile gaitzek artaz landutako zelai eta soro.

Hiriart-Urrutiren euskarak duen indar, jatortasun, adierazkortasun eta askatasunari oharturik, eta haren kazetalanen antologia guztiak ere (Lafitte: 1944, 1971, 1972; Camino: 1994), orotara, idatzi zituenen ehuneko bost edo seira ere iristen ez direla jabetuta, egilea ahalik eta osoen ezagutzera deliberratu nintzen<sup>1</sup>. Artetik esan dezadan, ez dakit badenetz euskal literaturan orain

---

<sup>1</sup> Lan hau Jean Hiriart-Urrutiren inguruko nire ikerketen ondorio duzu. 1998an BBK Fundazioak emandako bekari esker egin ahal izan dut, alde zaharretatik. Arren eskerrak BBKri, zuzendaritza onartu zidan J. Haritzelhar euskaltzainburuari eta nire egitasmoa saritu zuten epaimahaikoei, nigan ezarritako konfiantzagatik. Eskerrak ere P. Andiazabal eta B. Goity jaun kalonjeei, bai eta Iratzeder olerkari eta euskaltzain eta M. Etxehandiri ere, Baionako apezpikutegi eta Belloc-eko komentuan *Esqualduna* aztertzeke eman zizkidaten erraztasunengatik. Ohartarazi nahi dut, hala ere, artikulua hau 1999an idatzia dela eta harrezkerokoak direla Bibliografian aipatzen ditudan bi artikulua eta antologia berria (Jean Hiriart-Urruti. *Ni kazetaria-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*, Labayru Ikastegia-BBK Fundazioa, Bilbao, 2004) bere hitzaurreko azterketarekin (19-95. or.).

baino lehenago hainbeste idatzi duenik, *Eskualduna* kazetaren parte handi bat hark bere lumaz egina baita.<sup>2</sup>

Jean Hiriart-Urruti apaiz eta kalonje hazpandarra (1859-1915) euskal kazetaritzaren aita daukagu, orok nik uste. “Ni kazeta-egilea naiz” idazten zuen beti. Hogeita bost bat urtez ari izan zen *Eskualdunan*, nahiz lehenagotik ere hasia zen, hala euskaraz itzultzen nola frantsesez idazten Baionako *La Semaine* astekarian (Lafitte: 1971: 30). Kazetaritza zuen lanbide, nahiz ez ogibide; kazetariaren lumaz izkiriartzen zuen idazleak. Halatsu gertatu zaie iraganeko euskal idazle askori.

Baina ez da urteen kontua bakarrik aintzat hartu behar dena euskal kazetaritza historikoan, nahiz hori ere bai (d’Abbadiek ere beste 25 bat urtez idatzi bide zuen, B. Adémak eta J. Etxeparek 30 batez gutienez, etab.). Hiriart-Urruti ez zen kazetari huts. *Eskualdunako* idazleen buruzagi ere bazen. Bere artikulua idatz, besteei idatzaraz, berriketarien lana bultza eta gida, berriak hauta eta izkribuz eman, idazle berriak kazetara bil, iragarkiak itzul, saltzaileak kilika, astekaria eta haren urtekari edo almanaka agertaraz eta heda, kazeta eta inprimategiko idazle eta langileekikoa egin. Hitz batez esateko, kazeta osoa bere gain zuen. Egun guzietako lan izigarri dorpe higatzailea. Ez da harritzeko, beraz, 56 urtetan hil bazen bere azken artikulua doi-doi idatzi ondoan. “Lanean hil da, lanak hil du” idatzi zuten haren hilberria jakinaraztean. Ezen kazetari lanak beretua zuen, zenbat eta nardagarriago hainbat eta jarraikiago. Bere haurtzat zuen *Eskualduna*. J. Etxepare idazle handi eta haren ikasle baina bere burutik ari zenak esan zuenez, “Kazeta xume batean agertu izan da kazeta egile handi” (Charritton: 1984: 172).

*Eskualduna* aipatu dugunez gero, esan dezagun bi hitzez zer zen eta norentzat egina, aski ezaguna bada ere: Louis Etxeberrik Berdolyren *Le Réveil Basque* kazeta gorriari buru egiteko 1887an sortutako astekari elebiduna, Baionan aterea, bere burua euskalduntzat eta euskaldunentzat egina zeukana, familia, erlijio katoliko eta jabego pribatuaren aldekoa, aita familiakoaren, apaizaren eta gobernuaren larderia nahi zuena, kazeta borrokari eta ihardukitzailea. Bereziki laborarientzat sortua, lanbide eta langile mota guzietako giristinoei buruz ireki zen, bonetdun ala xapeldun, bai eta euskaltzaleei ere. Xurien kazeta –esan dezagun Ipar Euskal Herriko kontserbadore edo eskuinarena–. III. Errepublikaren politikaren kontra ari zen, eta, beraz, framazon, sozialista, radikal, anarkista, are judu eta protestante, bai eta kargudun edo

<sup>2</sup> “Jaun onek ainbat, gure ustez, ez du beste inork euskeraz idatzi. Ainbeste gaietaz ez beintzat. Estu-estuan (...) ”periodista” bakarra. Lendabizikoa bai beintzat”. G. Mujikak *Euskal Esnalea*-n idatzia (E 1493, 1915-12-10).

funtzionario guzien kontra ere, batez ere erriente-errienteen. Bi orrikoa, tamainuz haunditzen joan zen, I. mundu-gerran orri bakartu arren. Etxeberriren eskuetarik urrunduz, 1904tik 1907ra *Eskualdun Ona* izena hartu zuen, eta D'Arcangues nagusiaren eta Hiriart-Urruti idazleen buruzagiaren bidez apezpikuaren eskuetaratu zen, nolabait esateko.

Ez zen gero *Eskualduna* hain xume izan beti. Mende hastapenetan 1.000 lumerotaraino iristen ez zena, Hiriart-Urrutik, lanaren bortxaz, 1907an ia 7000 aletaraino jaigarazi zuen. Arrakastua izan zen beraz, aldezkazetaren lan jarraikiagatik, eta ez gutxiago etsaien jazarkunde itsuagatik. Hain zuzen, euskarazko katixima eskola publikoetan debekatzeak, elizen ondasunen zerrendatze edo imitazioek, fraide, serora eta apaizak beren bizileku eta irakastegietatik kanporatzeak (beha gure kazetariari, ohoin gisa bi jendarmeren erdian, besotik hartua joaki Larresoroko bere seminario maitetik fueratua!) badu ikustekorik arrakasta horrekin.

Zuhurra baitzen eta idazle eta langileekikoa egiten jakin, Hiriart-Urrutik erdietsi zuen, bere buruzagi lanean, bereziki *Eskualdun Ona* hasterakoan eta handik aitzina, idazle finko berriak bereganatzea (J. Etxepare, Lacombe...) eta idazle taldeak osatzea; hauen artean zuberotarrak (Constantindarrak etab.), lehen aldiz kazetara bilduak. Agian sekula ez da zubereraz hainbeste idatzi, herrietako berriekin maiz orrialde bat inguru betetzen baitzuten.<sup>3</sup>

Bere gaztetik eta hain luzaz kazetan idatzirik, kazeta baten egitekoez ongi jabetua, ez da estonagarri Hiriart-Urrutik oso garbi finkatu nahi izatea nola zerbitzatu irakurleen interesak, nola behar ziren jokatu kazeta eta kazetariak, eta areago, nola behar zen idatzi. Irakurleen interesez axola handia zuen, bizipide, laborantza eta abere hazkuntza, diruaren goiti-beheiti, merkatu, osagarri, etxeko gora beherez (Lafitte: 1971: 31), eta oroz gain irakurleen berri gosea asetzear eta atsegin emateaz, irakasteaz ahantzi gabe.

Berriemaleei helarazi instruzioetan kazetaegilearen jokaeraz ondoko puntuak finkatu zituen: hau gaizki, hura ongi dela esatea haizu zaio kazetaegileari (E 847); gizon publikoen huts publikoak behar denean bakarrik agertuko dira (E 1154); ez da haizu bizitza pribatua ukitzen duen berririk agertaraztea (E 1155); berri anitz eta orotarik behar da (E 1157); amen-omenkako berririk ez igor (E 1425); berri igortzale anonimoen berririk ez da agertaraziko (E 1154); kazetak ematen dituenak bere gain hartu behar ditu (EO 15 1905-

<sup>3</sup> "Zuberera hutsezko ekoizpen periodistikoa almanaka batzutura mugatzen da, eta bere iraunkortasuna euskarazko prentsan *Euskaldunan* agertzen diren zenbait zatitan datza" (Diaz Noci: 1994: 793). "Zenbait zati" baino zerbait gehiago idatzi delakoan nago ni, Diaz Nocik esandakoa oro har ukatu gabe.

4-17). Bertzalde, idazleen buruzagi gisa, kazetari idazkeraren batasuna nahi eta egin zuen, *de facto*, *Eskualduman*, bereziki ortografian baina deklinabidean eta kazetari hiztegia ere bai, hein bat bederen.

2. Bere haurtzaroan eta ikaskuntzen garaian Inperioa eta Eliza Katolikoaren hazkundera ezagutu zituen Hiriart-Urrutik III. Errepublikaren eta Elizaren arteko gerla eta gatazka giroan idatzi zuen. Zuzenago litzateke Elizaren etsaiei luma zorrotzaz ihardukiz borrokatu zuela esatea, xede hori baitute haren kazetalan gehientsuek. Beharrik Errepublikak hauteskundeak eta sistema parlamentarioa ekarri zituen, eta prentsaren askatasun ia ahalguztidunari esker idatzi ahal izan zuen nahi zuena, ahoan bilorik gabe mintzatzen zenetarik baikenuen.

Eskola publikoa eta laikoa ere ekarri zituen Errepublikak, Jules Ferryren eskutik (ezaguna da hau hil zenean Hiriart-Urrutik bere artikulu nagusiari ezarritiko izenburua, "Bat gutiago", E 1893-7-15). Bai eta Estatuaren eta Eliza Katolikoaren -elizen, zuzenago- arteko bereizkundera (1905). Errekak behera zihoan erlijiotasunaren galtzearekin gizatasuna, are emakumearen errespetua eta oro beheiti ari zirela uste zuen. Haren kazetalanetako framazonen eta Errepublikaren kritika, igandea errespetatu beharra, apaizak soldado joateko legea eta beste hainbat gai, garai hartako elizgizonen liburu edo euskal literaturako gai berberak dira; lekukotzat, Zaldubiren "Betiri Santz" (1875) edo "Errepublika" (1876), M. Elizanbururen *Framazonak* (1890), d'Abbadieren *Aphezak soldado* (1890; berrarg., *Euskera* 1998, 1), Arbelbideren *Igandea* (1895) etab.

Erljioarentzat askatasun osoa, bereziki eskoletan, hori da hautagai xuriek hauteskundeetan lehen-lehenik aldarrikatzen dutena. Gure kazetaria ere hunkitzenago du barne-muinetatik erlijioa eskolatik kentzen duen lege horrek beste ezerk baino, zeren

"Eliza guziak aurdik eta zola iraulirik ere bardin munta duke, behin erlisionea, Jinkoaren beldurra eta amodioa haurren bihotzetik kenduz geroz. / Gristinorik ez den tokian ez da izanen, ez apez, ez eliza beharrik." (EO 49, 1905-12-18 "Hoberen beharrak tzarren" art.).

Hiriart-Urrutik erlijio katolikoa eta euskara elkarri hertsiki lotzen zituen. Euskaldun zaharren hatz beretan ibiltzea (tradizioa) edo euskaldunak fededun egotea nahi zuen; areago, euskalduntasuna eta bereziki euskara erlijioaren habetzat zeuzkan. Araberakoa zen etsaitzat zituen framazon eta sozialisten jokabidea, zaku berean ezartzen zituena frantses hizkuntza eta frantsestasuna *le progrès* delakoarekin batean; eta euskara, eta orobat bretoiera, atzerakuntzarekin.

Euskararekiko ikuspegi kontrajarri hauek badukete ondoriorik xurien eta gorrien kazeta elebidunetan. Zeren eta hasieran batzuek eta besteek euskara berdintsu erabiltzen bazuten ere (erran nahi baita guti, hautesle eta herrietako kontseilueta frankok frantsesik ere ez zekitelarik bizkitartean), erlijioaren eusle izate horrek euskara erabiltzera ez ezik apaintzera zeramatzan apaizak. Hortaz, hiru apaiz idazle finkoren euskara on eta kalitatezkoari esker kazetan gure hizkuntza goiti joan zen, *Eskualdun Onaren* garaian (1904-1907) lehen aldiz nagusituz frantsesari; eta kazeta gorrietan, aldiz, beheiti.

Euskara gibelamenduari nahasi nahian, Combes ministro nagusia eskola publikoetan frantsesik ia tuntik ez zekiten haurrei euskarazko katixima debekatzearaino iritsi zen, frantsesezkoa uzten zuela bizkitartean. Bazterrak hein bat harrotu baitzuten horrek, sinadura biltze bat antolatu zen debekua- ren kontra Euskal Herrian, norbait ziren jaunen artean. Hiriart-Urrutiren ikuspegitik Combesen manua- ren xedea erlijioari jazartzea zen.

Etsai “deabruz eginikakoen” xede eta lege “tzarrak” eta “azerikeria” edo “zakurkeriazko” jokaera aipatzen zituen argudio nagusitzat, hots, egitateak egi- leen araberrak; etsaien lege gaiztoen ondotik zetozen, bestalde, haren ustez, orduko makurrak oro. Etsenplu on eta txar, erran zahar eta zuhur, Aita Saindu eta Eliza Katolikoko autoritate eta beti aitzina erreka- k behera jausten ari garela- koa ziren beste argumentazio egitura nagusietariko batzuk. Zuhurtziaz eta zent- zuz bil irakurlea, hein bat argituz; irakurlearen bihotza hunki, bihotzez atxiki irakurlea, horra zer zuen xede. Erdietsi zuenetz? Bere garaian geroztik baino ospe handiagoa izan bide zuen behintzat bere artikuluetatik.

Oneko alde zeukala zioen eta etsaiek txarrekoa, noski; beti egiaren izene- an mintzo, politikako gauzetan ere. Hori garai hartako xuriei buruz baliagarri zitzaiokeen, baina diskurtso erretorikoaren oinarrian ez dago egia, egiantzeko- tasuna baizik, ez baita gauza bera. Egia eta ona, beraz, haren ideologia eta poli- tika? Juduen eta protestanteen etsaigo, emakumea “bere herronkan” irauaraz- te (nahiz boz emateko eskubidearen alde zen, emazteak girstinoagoak direla- koan), frantses abertzaletasun, armadazaletasun, inperio eta koloniazaletasun... edo, hobeki esan, *keria* nekez onar dezake egun gure arteko inork.

Kazetari politiko gisa, “kazeta tzarren” kontra ari zen bere ustez, eta Etxepareren iritziz “politikeroen ttintta” bazuen<sup>4</sup>. Kazetariarena “azken ofi-

<sup>4</sup> (Ademarekin konparatuz) “Ademaren erakaspena bakunago da, itzul-inguru gutiagorekin, eta orobat berdin mamitsua, izaitzekotz mamitsuago. Hiriart-Urruty aldiz politikeroen odol ttintta bat bazuelakotz zainetan, beroago zen, gataskariago, suharrago borrokan, haginak ardurasko zorrotz eta aztaparrak sistakor”, “ukumilo ukaldia edo ostikoa berdin azkar emai- ten zuela noizean behin batek ala bertzeak, hori baita beharrena” (Charritton: 1984: 231).

zio” zeukan, beti “politika nardagarria” aipatu beharra ez zuen gogoko; nahia-go zuen beste gai batzuez ari edo istorioak konta. Baina hauteskundeak usu baitziren (deputatu, senatore, kontseilari jeneral, herrietako kontseilu), erlijio-aren aldeko hautagaiak bultzatu behar. Eta halakorik ez bazen, bederen kontra ez ziren errepublikar moderatuekin hautsi-mautsi bat egin, nahiz berenaz eztiak ez zituen batere gogoko.

Etsai gorriekiko gudua ematuz zihoalarik, hara non agertzen den kanpoko etsaia. Berehala gorriekin bakeak egin eta *Biba Frantzia!*, orok alemanari buruz gerlara lehian, eskuina eta ezkerria. Gure apaiz kazetaria bezalakoan eskuineko politikak jendeak gerlara eraman bazituen ere, non ziren Jaurès eskubiak hilarazi bakezalearen jarraitzaile zirelakoak? Nolanahi ere “Gerla Nagusia” delako madarikatu horren basakeriek mundua eta Euskal Herria odolustu zuten eta gure kazetaria higatu, buruz ere, kazetako lanaz gain herriz herri gobernuaren izenean urre-eske predikatzen eta kolpatuei eta soldadoen familiei etengabe bihotz ematen ari izan baitzen.

3. Hiriart-Urrutiren kazetalanak, gehienak behintzat testu edo diskurtso erretorikoak dira (are berrien kontara eta istorioak, hein batez). Hitzaldi edo diskurtso erretorikoa “atseginaz eta emozioz, argumentazioak eutsita, persudatzen duen diskurtsoa” besterik ez da (Reboul: 1993: 32-33), nahiz oraindik frankok gaitzespen kutsua eransten dieten “erretoriko” eta “erretorika” hitzei, ezjakintasunez. Beraz, haren kazetalan-genero eta estiloak erretorikaren aldetik aztertzea komeni da, bai eta kazetaritzarenetik ere.

Hiriart-Urrutik hiru kazetalan mota nagusi eta horiek agertoki zuten hiru sail ekarri ditu euskal kazetaritzara. Ezagunena iritzi artikulua nagusia da, “lehen mintzaldi” edo “lehen solasaldi” izendatu ohi zuena (fr. *article de tête*). Kazetaren buruan ezarria, lehen orrialdearen ezkerreko zerrendan, idazle buruzagiaren artikulua izan ohi zen, kazetaren politika markatzen zuena, egungo *editorial* direlakoan eitekoa.

Entzuteko hitzaldiak balira bezala eraikitako mintzaldi hauetan Hiriart-Urrutik irakurleei irakatsi nahi die, nornahi eta zernahi hunkituz; beste batzuetan etsaiari iharduki eta jazar, irakurleen haserrea sortaraziz edo urrikal-mendua. Tonuak ere araberakoak: irakasteko mintzaldietan didaskalikoa da batzuetan, are maiestatikoa zenbaitetan; gehienetan serioa, ezkorra (ez du uste handirik justizian), erasiakorra irakurtzaileekin (ezaxola egotziz), edo bestela erasokorra etsaiekin, are maizkara irri eta trufa, laido eta piko edo zaharozkoa. Baina Hiriart-Urrutik tonuak aldatzen eta aldizkatzen ohi zituen (serioa irri-garriarekin, adibidez), are artikulua berean, irakurleari atsegin harrarazteko.

Halaber formak (argudiaketa, kontaera, elkarrizketa, deskripzioa). Forma horiei bi estilo nagusi dagozkie, lehen mintzaldiko diskurtso erretorikoan erabiltzen dituenak, elkar osatuz, eta aldizkatuz: alde batetik, hizlari estiloa (batzuetan erran eta esaldi biribiletako sententzia estiloarekin elkartuta), usu haren lagungarri erabiliz dialogismoa edo hizketa eta eztabaida teknika; bestetik, kontalari estiloa.

Egiturei dagokienez, epai tankerakoa da tipikoetarik bat (egitate edo printzipioak aipa, gero horiek aplika eta azkenik epaia eman). Mintzaldian puntu bakar bat garatu nahi zuen; hala ere, frankotan, sarreran luzatzen zen edo solasaren haria galtzen. Bukaerak eta izenburuak artaz lantzen ditu, elkarrekin lotuz. Bukaeretan mezua laburbiltzen du, emozioz adieraziz (desira, ahalegia, erasia, irri eta trufa, bihozmina...), epifonema, formula edo esaera biribil sententzia estilokoaz, adib. "Erlijioea kenduz geroz, akabo gizontasuna!" (E 347) edo "Jainkoak begira dezaukula dugun erlisionea!" gisako deprekazioekin. Izenburu arreta erakargarri, labur-trinkoak eta batez ere adierazkorrrak dira harenak; maiz ironikoak, edo erranak eta jendearen ahoko esaerak jasotzen dituztenak.

3.2. Ezin onetsiz bere burua euskaldun eta euskaldun irakurleentzat egina zen kazeta batek, berri-igortzaile euskaldunik guti zela edo frantsesez igortzen zituztela-eta, euskal herrietako berriak frantsesez ematea -eta urruneko albisteak, aldiz, euskaraz-, Hiriart-Urrutik erabaki zuen euskaldunei beren arteko berri eta gorabeherak euskaraz eman behar zitzaizkiela (E 237, 1891, "Mintza gaiten eskuaraz", *Eskualduna* sinatua). Ariaren bortxaz, berriketari sare bat osatu eta "Eskual Herria" izeneko saila eraiki zuen, "Lapurdi", "Baxenabarre" eta "Zuberoa" azpisailetan banatua, eta horietako bakoitzean herriz herrika. Sail hau hark sortua da eta geroztik tradizio handikoa euskal kazetaritzaren historian, egun ere *Herria* kazetan baitirau. Hau Hiriart-Urrutiren ekarpen axola handienetariko bat da, nahiz kontu hau ia inork ere aipatzen ez duen eta antologietan ere herrietako berririk ia agertzen ez den. Honen arrazoiatarik bat izan daiteke *Eskualdunako* kazetalan gehientsuak sinatu gabeak direla, eta, beraz, egilea(k) estilotik ezagutu beharrekoa(k).

Herrietako berrien gosea asetzea zen, gure kazetariarentzat, lanen lana: berriketariak eta berriak bil, hauta eta euskaraz eman. Hark idatziak baitira Baiona inguruak eta are beste herrietako gehientsuenak, ez oro. Zertako hark berak idatz? Ez dakigu zuzen oraindik, baina hura hil ondoan idatzi zuten: "Ezen eskuara ez dute orok hitz berez izkiribatzen. Bertzeetarik ukan berriak behar zituen beraz bere eskuz izkiribatu" (E 1489).

Herriz herrrikako berri horiek orotarikoak ziren: tribunaletako auzi, ohointza, hiltze, istripu etab. Testu informatibo-narratiboak dira. Herrietako historia aldetik ez eze, kronika edo kontraera hauek baliotsuak dira idaztanke-  
ra eta tonu libre eta desberdinetakoak direlako (ironia eta trufa darie anitzi) eta kontateknikek ipuinetan erabilitakoen eite dutelako, eta ez egungo kazetarien harako "piramide azpizgorakoa" rena, non kontraera azken gertakarietarik has-  
ten baita. Hiriart-Urrutiren konposizio edo kontraera estilo tradizionalak irakurlearen arreta atxikiz eraikitzen du testua.

Herrietako berri batzuetan sartzen du ere beste kazeta-genero ohargarri bat, egun gure artean gutiago ageri dena: hil ospetsuen berri, apaizkide, euskaltzale, jaun handi... adiskide edo etsai, horien laudorio edo gaitzespen eginez. Klasikoen *genus epidicticum* delakoaren mota bat da, erkideen edo irakurleriaren arteko balioak gorapatuz loturak sendotzeko hitzaldi erretoriko zinez baliagarria.

Hiriart-Urrutiren berriekiko axola azpimarratu nahi badugu, askoren usteak koloka ezarri gogo baizik ez dugulako da, anitzek uste baitute euskarazko kazetaritza oso atzeratua izan dela beti, adibidez informazio generoak oso berant heldu zaizkigula, I. mundu-gerlaren ondoren edo. 1910eko *Eskualduna* atzemanaz gero, nahi duenak irakur ditzake, adibidez, "Berrixkak" (E 1235) edo "Azken berri" (E 1242), gerlakoak baino lehenago-koak. Berri laburrak dira eta berriak huts-hutsik, geroago *Euzkadi*-n edo *Euskaldunon Egunkarian* agertuko zirenen aitzindariak.

3.3. Beste genero mota batzuk ere sortu edo sartu zituen *Eskualdunan*, bi sailetan kokatuz: *Zer eta zer* sailean, berak sortua, eta kazetek ohi zuten *feuilleton* delakoan. Josta-kazetalanak dira hauek eta oroz batean irakaspennunak, 2. edo 3. orrialdean kokatuak. *Zer eta zer* sailekoak kontakizun libre-agoak dira, esan nahi baita berriak heda eta jakinarazi beharrak manatzen ez dituztenak: berri mutxituxeak, nonbaiteko gertakarien istorioak nahiz irudimenetik sortuak. Batzuetan hark berak, bestetan besteren batek (Barbier etab.) idatziak. *Zer eta zer* sailari ohartu zitzaion Etxepare, Hiriart-Urrutiren lehen mintzaldi eta herrietako berrien idazkeratik ere hainbat gauza ikasi zituena.<sup>5</sup>

<sup>5</sup> "Han hemenka, aste guztietako lehen mintzaldiaz bertzalde, guziz "Zer eta zer" deitu ozkan, ezagun zen, bai eta zuten ezagutzen aspaldian gehienek, haren eskukaldi berezia. Euskara bezala hedatu ere du Euskal-Herrian euskararen amodioa, garbitu ondoan gure mintzai eder zaharra, zahartzearekin lotuak zitzaizkon belar gaixtoetarik." (Charritton: 1984: 172). *Buruxkak*-en kroniken erreferentzia nagusia Hiriart-Urruti da (Casenave: 1997: 140-146).

Bi sail hauetan, beraz, oro har, alde batetik irakurleei atsegin emateko idazlanak bildu zituen: istorio zahar eta berri edo etsenplu ematekoak, istorio bitxi, ateraldi eta irri solas, haur ele... zer eta zer ez? Kazetak urte hondarean atera ohi zuen almanakan ere agertarazi ohi zituen honelakoak. Egun euskal tradiziokoak diren josta-idazlanik guti ikusten dugu gure kazetetan, ez ateraldi, ez irri solas, ez bitxi ez bitzirik (irakurleak atseginik eman dakion merezi ez duelako edo?). Bereziki istorioek Hiriart-Urruti kontalari handia dela erakusten digute, *Euskal Herria* sailekoek eta are lehen mintzaldiko anekdota eta pasadizoek aski erakutsi ez balute ere. Oso gutxi aipatua den alderdia, antologietan ere ipuinen bat edo beste baizik ez baita jasotzen. Uste dut euskal literaturaren historiak toki bat zor diola. Oro har, literaturarekiko loturek bizirik diraute haren idazkeran eta generoetan, frantses tradizioaren eraginez agian.

Bestetik, jaun xapeldun euskaltzaleentzakoak agertarazi zituen aipatu sailetan: literaturlanak (emanaldikako kontakizunak, neurtitzak), euskal liburu argitaraberrien berri eta iruzkinak (hark eginak dirateke zenbait), liburu argitalpenak eta euskalaritza solasak. Guztiz aipagarri dira hark berak eginitako bi argitalpen, hain zuzen adiskide zituen Duvoisin-en *Laborantzako Liburuarena* (emanaldika 1888-1891 urteetan; liburu gisa bereiz 1892an), hitzurrearekin, eta Ithurriren gramatika, honek hiltzerakoan hari utzia, ohar jakingarriekin argitara zuena, nahiz ez osorik.

Hiriart-Urrutiren beste kazetalan batzuk, aldiz, aipatuko baizik ez ditugu: itzulpenak (eliz aitzindarien gutunak, hauteskundeetako propaganda idazkiak, iragarkietako testuak...). Aipagarriak dira ere frantsesez idatzi zituenak, oso ongi idazten baitzekien hizkuntza horretan ere.

4. Diskurtso erretorikoari dagokion mintzaira apaindu eta prosa erretorikoa ekarri digu, batez ere, Hiriart-Urrutik. Hemen bereziki lehen mintzaldikoa dugu solas, kontraerakoa erabat bazter utzi gabe, ordea. Ezen diskurtso eta prosa erretorikoa da harena, hots, pertsuasioa helburu duena. Baina, greziar klasikoei mendez mende ikasi diegunez, edertasuna da erretorikaren alderdi baitezpadako bat, pertsuaditzen laguntzen baitu. Arren, beraz, Hiriart-Urrutirena ez da prosa lau edo arrunta (*degré zéro*), egungo kazetariak, gehienek bederen, damurik, egiten duten bezalakoa; bertzerik da.

Hiriart-Urrutiren prosa erretorikoa, alde batetik, hitzen, adierazpideen eta figuren –hots, prozedura estilistikoen– hautuan agertzen da; erritmoan, bestetik, erritmoak ere pertsuaditzen laguntzen baitu. Hortaz, haren mintzairaz jardutean ezin da hau erretorikatik, hots, argumentazio eta figuretatik bereizi. Erretorikaren legeek manatzen dute kazetariaren hizkuntz-baliabideen hautuan. Adibidez, baldin perpaus joskura bihurri-landuekin batera

Hiriart-Urrutik jendearen ahoko adierazpideak –ez liburuetakoak– badarabiltza, ahozko mintzairaren eta erretorikakoaren nahasketa berezia sortuz, ahozko mintzairaz baliatzeko hautu hori bera, hain zuzen, hobeki pertsuaditzeko xedez egina dateke, ulergarritasuna bilatzeaz gain. Gero, jendearen ahoko mintzaira erabiliagoa da kazetaritza herrikoian, lehengo eta oraingoan, kazetaritza formalean baino, eta Hiriart-Urrutirena kazetaritza herriko horretatik hurbil da.

Erretorikak eta kazetaritzak galde eginik, Hiriart-Urrutik mintzaira argia hautatzen du, baina oroz batean apaindua eta hein bat berria –ez ohikoa edo arrunta–, bai eta adierazkorra ere. Eta gero irakurlearen arreta atxikitzen duena, harekin buruz-buruko harremanak eta elkar aditzea bilatuz.

Bi hitz derragun kazetariaren hiztegi jori, berritu eta garbiaz, mintzaira eta figurez baino lehen. Hiztegi aberatsa da utzi diguna, kazetaritzako arlo gehientsuetako hitzak erabili behar izan baitzituen. Kazetari senez, bere garai-ko jendearen ahoko hitzak erabiltzen zituen, Broussainek ohartarazi bezala<sup>6</sup>. Eta Harrieten hiztegia Larresoron egonik, baliatu zukeen, Lhanderen hiztegi oraino argitaragabea kausitzen baitira kazetariaren hitzik anitz, bernes nahiz gazteleratikako ere.

Hitz garbien hautua ere erretorikoa dateke, edota estilistikoa, euskal idazleen, bereziki Duvoisin, joera garbizaleari atxikia baitzen hein batez, hasieran bereziki. Hain zuzen, “Ez dugu uste baden eskuara garbiagoz eta gozoagoz eginik” idatzi zuen *Laborantzako Liburuaz* (E 285). Arkaismo edo neologismorik ez zuen nahi: hots, “nehor ezin hurbilduzko hitz nonbeitko noizpeitko zahar kozkor edo berri kakola bihurri” haietarik (E 562). Ez, beraz, aranatarren hitz berririk, salbu *beribil*, kazetan itsutuki eta jakintsuen irriak iretsiz bultzatu zuena 1909tik aitzina.

Euskara errotik baitzekien eta orobat euskaraz pentsatzen, gure hizkuntzak “bere baitarik daukan indarra” (E 352) baliatuz aski zuen euskal hitzekin edo hark berak atzizki bidez sortuekin eta euskal lokuzio edo adierazpideekin. Ez zen egungo kazetari eta idazle anitz bezain maileguzale ez hitz berezi edo teknikoazale. Mailegu ugari hartu zituen, hala ere, guziz *Eskualdun Onatik*

<sup>6</sup> “Sauf son fameux *beribil*, auquel il s’attachait avec une ténacité enfantine, il n’a employé que le vocabulaire de son époque et il l’a bien employé. Par le fait même qu’il était journaliste et partant obligé de traiter toutes sortes de sujets, il aura laissé un vocabulaire écrit beaucoup plus complet et plus varié que Lissarrague et Axular qui n’ont traité que des sujets religieux. Je ne parle pas du verbe, bien entendu. Mais peut-on demander à un journaliste qui écrit pour tout le monde d’employer des flexions verbales tombées en désuétude?” (Broussainek Lacomberi, Hazparne, 1915-XII-3, Hiriart-Urruti hil ondoren), in Charriton: 1982, 1986.

aitzina, uste baino gehiago. Atzizkiak ustiatzen ditu, beraz, bereziki kazetari-tzako hitz orokor eta tekniko berriak sortzeko; honetan ere ez da batere gu-txiestekoa haren ekarria, eta hitz franko garaiko kultura eta gauzetarakoak izan arren, beste anitz egun ere baliagarriak dirateke.

Hitz eta esapideei dagokienez euskara odol berritu eta gaztetu nahi zuen<sup>7</sup>. J. Etxeparek zioenez: “Axular zenaren ganik hunat, zer karrakaldi beharrez-koa ez dako eman eraskitzari! Zonbat hitz zahar ez ditu gaztetu; zonbat erran zuhur ez erain, Almanakaren arartekoz (...); zonbat hitz eta hizkuntza berri ez dauzkigu utzi oroitzapentzat!” (1915; Charritton: 1984: 172). Alabaina, jende-aren ahoko itzuli berezi eta esaldi biribilez baliatzen da, baina sortze eta bihurtze bidezko adierazpide eta egiturak ere gogoko ditu, bere idazle eta erretorikalari senari jarraiki.

Ondoren, lau sailetan banatuko ditugu kazetariak bere mintzaldi erreto-rikoan erabili ohi dituen hizkuntz-fenomeno eta prozedura estilistiko nagu-siak. Leku eskasez, adibide guti baizik ezin ezar. Horietako batzuetan letra beltzez azpimarratuko ditugu figurak, hobeki ulertzeko asmoz.

4.1. Hizkuntzaren hotsetan eta erritmoan oinarrituriko hizkuntz-baliabi-de eta figurak lehenik. Hiriart-Urrutik maisuki eta gutik bezala marruskatzen daki soinu bustien erabilera adierazkorra (*zahar / xabar*), eta orobat kontrako fenomenoia, haunditasun edo gaitzespenez markatua (*xorta / zorta*).

“Langilearen ttattolatzeko, llilluratzeko; hots, (...) *boz zenbeiten biltzeko*, egiten dituzte holako legeak” (E 621, 1899-5-12).

“puskatto bat jan eta *zorta* bat edan ondoan, bilkura egiten duen jauna hobeki mintzo omen da” (E 541, 1897-10-29 “Sozialixtak” art.).

Prosa zinez entzungarria da Hiriart-Urrutirena. Hoskidetzan eta perpau-saren erritmoan oinarritzen dira haren figurarik adierazkorrenak, bereziki bukaera berdintzeak (homoteleton), zirtoak, eta gero asonantzia eta alitera-zioa. Figura hauek beste anitzekin elkartzen ditu. *Le Progrès de Biarritz* kaze-ta gorriak euskaragatik esanei buruz hona zer dioen ironia eta trufaz:

“Sekulan ez zinezakete pentsa, zer eta zoin den eskuara, otso eta aker mintzai hunek guri, eskualdun gaixoeri egiten daukun bidegaberik handiena... / Kalte bat egiten dauku gaitza, ikaragarria, miletan entseaturik ere ez baitzi-

<sup>7</sup> “Mais raisonnons un peu: À quoi bon, dites-vous, s’efforcer de rajeunir une langue qui depuis cinquante ans vieillit...”, (“À quoi bon?”, Notes Euskariennes, “Eskualduna” sinatua, E 1156).

nezakete atzeman zoin, zer... -Zer mila sorgin ote da?. -O!... frantsesez erranen dautzuet, zeren ez baitire Miarritzeko jakintsunen burutikako egia (?) handi hoik eskuara **motz** eta **zotz**, **korotz** huntan kokatzen ahal. Emazkitzue lunetak. / *Eskuarak eskualdunei egiten deien bidegabe handienetarik bat da, zera... frantsesez deitzen baita "alcoholisme" eta hura.*- (E 835, 1903-6-26).

Bukaerako hoskidetza egitura berdintsuen aldizkatzearekin lotzen du. Anarkistez mintzo, dio ironiaz:

"Lana baino nasaiago oraino eta gozoago izanen da *jana*." (E 347, 1894-2-19).

Jendearen gogoko ditxo edo zirtoak, hots, erantzun zorrotz, errimadunak maite ditu. Adibidez, Jaquin juje handi eskandaluan atzemanari apostrofatzen dio:

"Hizen bezalako *Jaquin* ! Hi zer putikoa hizen guk lehenago ez jakin!" (E 780, 1902-5-30)<sup>8</sup>.

Gormandiza maiseatuz, jendeak bere bizipideak xahutzen dituela eta, dio "Bixkotxak urririk" artikulu politaren bukaeran:

"Zorrak *ba*, zorrak!.../ Ontsa kexu dira zorrez ala jazko haizeaz. Ea badukegunez gormandizañoa zertaz ontsaño **haz**. Hartzeduruek egin bezate buruan **hatz**." (EO 24, 1904-6-17).

Hona aliterazioaren adibide pare bat; bigarrena, Ravachol anarkistaren gilotinaratzea deskribatzen duelarik:

"Orori ele eder, **azkarrenari azkenean esku**" (EO 3, 1906-1-19).

"Burregoa ari zaiolarik bizkar gibelean bi eskuen estekatzen, ahora jin guziak **erraiten** diozka, **erdi irriz**, **erdi hortz karraskan**, iduri josteta bezala" ("Hil dute", E 268, 1892-7-15).

Aliterazioak bezala, figura hauek ez dute adierazkortasun indarra huts-hutsik, pertsuasio indarra ere badute, hitz adierazlearen eta adieraziaren arteko harmoniak egiantzekotasuna islatzen duelakoan (Reboul: 1993: 40).

Hots-hitzen jokotikako figurak ere usu darabiltza, neurkera-figurekin batera. Erran nahi baita, errepikapen eta aldakuntzan oinarrituz esanahi desberdina azpimarratzen dutenak (paronomasia, antanaklasia, poliptoton, derivatio....). Hona paronomasiaren adibide bat:

<sup>8</sup> Honek esaeeraren baten oihartzuna dakarke. Azkuek ondokoa jasotzen du: "Joakin: i noiz hilko aizen guk ez jakin". *Euskalerrriaren Yakintza*, III, 43, G-Ataun.

“zorra zorri, odol iresle” (E 1396, 1892-7-15, “Frantziaren zorrak” art.)

Poliptoton delako figurari ere atxikia da (bereziki *elkar* eta *oro* hitzeki-koei). Poliptoton bere gisakoak ditu aditzen bidezkoak, ironiaz maiz, ondokoan bezala:

“... *Berteaux* deitu deputatu okaztagarri batek erran du (...): “Izialdi bat behar zitzeiela eman katolikoei, eliza-gizon guziei. –Zertako? –Zeren eta zer nahi egin omen baitugu, baitute baituzue boz hoitan elizatiar boz emaila guziek. –Zer nahi, zer nahi... Bainan zer ote bada dukezue dukegu, dukete hain itsusirik egin?” (E 784, 1902-6-27).

Hots eta esanahiaz jokatzuz hitz berriak asmatzen daki zorrozki. Hona hemen crasis figuraren erakusburu polit zenbait. Lehena Ferry hil ondolan, ahokia gurutzerik gabe eraman zutela-eta:

“Abereak bezala bizi; abereak bezala hil, abereak bezala ehortz. / Hori dute deitzen gero errepublika. Ez da, ez, hori errepublika. Hori da *urdepublika*, edo *debrupublika*; emagun nahi baduzu: Framazonpublika” (E 304, 1893-3-24).

“Zeren eta gorriak, zozialixtak, *orobardinixtak* ez omen baitire eiki hortan gelditzekotan” (E 309, 1893-4-28).

4.2. Irudi bidezko mintzaira eta figurez den bezainbatean, esan dezagun lehenik Hiriart-Urrutik zinez ugari baliatzen dituela hitz eta adierazpide tropiko egin eta hizkuntzan finkatuak. Hots, hiztegieta irudizko esanahian agertzen direnak edo behar luketenak, ez baitira haren kazetalanetako guztiak ageri. Politikako hizkeran barra-barra eta beti adierazkorki darabiltza, beti solasari datxikola. Erran zahar edo zuhur metaforikoek edo haien bihurketa-tik sortuek osatzen dute atal bat, lokuzioek beste bat. Usuenenatarikoak dira ondokoak, zenbait bederen tradizio handikoak Iparraldean:

“Aspaldikoa da hori. Urak eta apezten pagak bide egin dute geroztik.” (EO 36, 1906-9-7, “Apezen paga”).

“Fuera Berdoly! Kuku framazonen esku-makila!” (E 28, 1904-7-15, “Berdoly”).

“Trufa baino musika gehiago” (E 847, 1903-9-18). Edo “zauriaren gainean pikoak”. *Gazt. Sobre cornudo, apaleado*, hots, etsaien jokabidea adierazten duena.

Atsotitz edo erranak laket zaizkio hitzaldiari indar emateko. Sozialisten jokaera irudikatzekeo darabil bearnes hizkuntzatikako hau:

“Aqueste mon es un tripot; atrape qui pot”.

Beti norbaiti aiher edo errangura diren berri heltzaleez, berriz:

“Halakoak otoizten ditugu (...) ez dezatela *Eskualduna* egin beti eltze guzien burruntzali, zoko moko guzien xahutzeko esku-piltzar eta jats.” (E 1157, 1909-6-11, “Ez guretzat”).

Honelako lokuzio metaforikoetarik berrehun bat hurbil ezagutzen ditugu (Altzibar: 2001). Irudizko konparazio ironiko adierazkorrak erruz darabiltza:

“gizontasunaz ala egiaz, ala zuzenaz, ala jazko haizeaz bardin axola” (E 860, 1903-12-18).

Halaber hiperbole metaforikoak. Politikako xarlatanak “baheaz uraren hitzemaile” direla dio (E 1339). Beraz, esaera eta lokuzio –irudizko edo gabe-ko-, bai eta hizketa esapide edo ohiko formula anitz ere jasotzen ditu jendearen ahotik eta biziberritzen kazetaritzan:

“Ez jauna, ba jauna! Hi bahiz, ni ere ba: horra non den herri guzia sutan” (E 282, 1892-10-21).

Metafora-hariak ere ugari darabiltza, irakurleen buru-bihotzak argitzeko irudiak elkarrekin lotzen baititu. Erabilienetariakoak dira ondokoak: lezea (Frantzia lezearen zolara emekiño joaki); zakur errabiatuak (fraide-seroren eskolak hesten ari dituzten ministro tzarrak); soka lepotik (hala darabilte etsaiek jendea hauteskundeetan). Ironiazkoa da diru-ontziaren beheitikoarena, bankuetan konfiantzarik ez eta jendea dirua ateratzen ari baita:

“beheitiko bat izigarriak hartua da gure “caisse d’épargne” gaizoa. / Badario, badario, badario.” (E 840, 1903-7-31).

Metafora eta konparazio anitz erranetan oinarrituak dira, adibidez “otsoa artzain” (Oihenart 382), Otsobik ospetua. “Barea exurrik eta odolik gabea” (Azkue: 1969: 399) esaeran oinarritzen da ondokoa, non *Eskualdun Onaz* eskuinetik eta ezkerretik nola mintzo diren azaltzen digun:

“Batzuen arabera *Eskualdun Ona* barea bezen hila da, eta maltsoa; hortzik ez, etsaiaren ausikitzeko; ez koskatzeko adarrak. Balinbadu ere, bare kurkuilak bezala, sar-ateraka erabilki adarrak; den gutieneko haize hotzak izitzen. Hots, odolik ez, zainik ez. / Iduri beldurrez ikaran gaudela, edo lo. Holatsu zaitzu mintzo eskuinetik. / Itzul ezker. *La musique change*. / Mihi gaixto, beti kexu, beti orotaz errangura; sekulan deus ez gure gogorakorik. Oro beti makur doazila. Gizon publikoen solas eta urrats guziak makurrerat har. Ez dugu oraikoa.” (E0 3, 1906-1-19).

Liztor edo lizafin ziztatzaile eta bizkarkinen irudia da usu darabilen beste bat. Ondoko testua aberatsa da konparazio iradokitzaileetan, egilearen ikuspegiaren erakusle ere bai:

“Erraiten dautzuet harrigarri dela oraiko gazteen ikustea: neskatokoak ostoila idor batzu baino arinago, pinpirina iduri, ortzi adarraren zazpi koloreak soinean, jauzika, itzulika, xirimolaka, haize hegoak errautsa nola derabila? Bardin bardina. Mutiko zozo batzu heieri so, begiak eta ahoa zabalduz; gaizo mutikoak! / Deus onik ez diren eta ez duten lizafin gormant batzu ezin ase lanak baititutze. Hanbat gaxtoago; zertako ez utz beren gain uzteko hobeak direnak?” (EO 33, 1905-8-18).

Konparazioak baliagarri zaizkio irakatsi edo adierazi nahi duena argitze-ko. Xurien soraiotasuna eta beldurra adierazteko hona irudi indartsu bat:

“Nago, ihes egiteko ere ukanen dugunez, oraiko itxuraren arabera, zai-rik aski? Ala, xoria sugearen aho zilorakoan bezala, beldurra gure tokian izatuko gaituenez ote?” (E 814, 1903-1-23).

Etsaiak degradatu nahian abereekin konparatzen ditu (otso, azeri, txakur errabiatu); Berdoly, adibidez, zahagi zahar edo barrikarekin (EO 21, 1905-5-26). Konparazio ironikoak (“oilategiko haga bezen garbi”) eta hiperbolikoak ere baliatzen ditu; orobat hiperbole eta adierazmolde hiperbolikoak, hitzen adieraziezintasunaren lekuko.

“Pipa bat tabako ez eta ere tu bat ez duela balio; hatsa gezur eta ele zuri dariola, egun gu azkar gure hatzean” (ohart *batsa / hatzean* hitz jokoari ere).

4.3. Esaldien joskerarena da agian Hiriart-Urrutiren alderdi ohargarri eta bereziarena. Prosa zalu edo malgu eta lasterra –beharra kazetaritzan–, higikorra eta askatasun handikoa ekarri digu. Lafittek zioenez, dantzaria (*figura* hitzak latinez dantzako eskemak adierazten ditu) eta fantasia poxi batekin: “zumea bezala bazerabilkan eskuara, gogo bihotzak eta aldarteak gidari” (1971: hitzaur., 38).

Aditzaren erabileran oinarritzen da josturaren zalutasun hori; batez ere aditz elipsi eta *inversioetan*, hein bat adizki trinkoetan. Aditz laguntzailearen elipsia bereziki kontaeran baliatzen du, aditzoina usu hutsik ezarriz, edo aditz nagusia partizipioan. Baina aditz nagusia ere badaki ezabatzen, edo aditzik bat ere gabe hizketa eta kontaerako esaldi laburrak osatzen. Aditz laguntzailearen elipsia da Ithurrik “syntaxe de la rapidité de la phrase” deitzen duenaren oinarri (*Grammaire*, 445).

Aditzaren bere gisa lekurtzeak (are SOV delako ordena kanonikoa maiz elkarrizketan ere ez gordetzeak) nahiz aditzaz landako *inversioek*, anakolutoek eta figurek Hiriart-Urrutiren hitzordenaren askatasuna –baina mintzaira erretorikoaren edo estilistikaren manupekoa– salatzen dute. Aditz aurreratzea

kontaeran nahiz estilo diskurtsiboan gertatzen da, azalpen eta eztabaidan ere usu, eta ez gero esaldi luze korapilotsuetan soilki (“Geroztik hunat joan dire ehun urte”, E 278); aditz laguntzailearen inversio edo aitzinatzeaz baliatzen ohi da enfasia adierazteko (“Giten ixil, mintza ditela gauzak”, E 262). Baina irakurlearen gogoia zintzilik utzi nahi duenean aditza perpaus edo paragrafoaren hondarrera igortzen ere badaki.

Areago, Hiriart-Urrutik guziz joskeran edo morfosintaxian egiten duen bihurketa, are transgresioaren gakoa ere erretorikan dagoke eta ez gramatikan. Idazle denak ez baititu beti gramatikaren legeak errespetatzen, ez behar ere hizkuntza adierazkortu, berritu edo sortu nahi badu (Altzibar: 2003). Har dezagun erakusburutzat *elkar* izenordainaren erabilera estilistikoaren bi adibide:

“Bainan ez baikira ordean bakotxa bederazka zoin gure gain. Gure zuzenetan elgar behar baitugu lagundu; esku eman elgarri. Ohoinak eta bertze gaizki-egileak behar baititugu **elgarrek** elgarren lurretarik urrundu.” (E 500, 1897-1-15).

“Anartean ez ote da guretzat aneiki, **elgarrenki** bizitzerik?” (E 1435, 1914-10-23) (sic; ala moldiztegi-hutsa, *elgarrekin* jarri beharra?).

Joskura-figurei dagokienez, errepikapenak eta elipsiak dira kazetariak gutiziatuenak. Elipsiek, hitz erdika irakurlearekin elkar aditzea eskatzen dutenak, prosaren zalointasuna daragite eta egilea erran edo esaeren eiteko plegu biribilak sortaraztera akulatzen. Estilo eliptikoari lotuak daude asindetona eta erretizentzia ere.

Errepikapenak –hitz berak errepikatuta nahiz sinonimoak esanahi berarekin– Hiriart-Urrutik erruz darabiltza, baina ez oroitarazteko edo arreta erakartzeko bakarrik, ez eta ideia ala mezua bortizkiago iltzatzeko beti; errepikapena *pathos*-en adierazle da maiz, emozio eta ironiaren eragile. Gudu giroan bizi diren kazeta alderdikarientzat beharrak dira errepikapenak. Halaber jokutzen da gure kazetari gudukaria, hitz nahiz egitura laburrak 2, 3 edo 7, 8 alditaraino obsesioz errepikatuz, noiz iltzea buruetan barna sartu nahian, noiz barne-zirrara sentiarazi nahiz, eta maiz ironia edo trufaz. Arestian ikusi ditugun *elkar*, *oro*, *nehor*, edo ministro, deputatu eta senadore tzarrek eginiko *lege*, edo *trufa* –harentzat orobat dena– edo fraide-serora-apaizak *fuera* eta *ken*, eskolak *hets*, edo ministro *ohoinek* eliza katolikoaren ondasunak *ebats*. Iragarkietako esloganetan ere baliatzen ditu, edo kazetaren zabalkundea bultzatzeko:

“Eros eta erosaraz; irakur eta irakurraraz. Igandetako eliza ofizioak eta oro, noiz zoin diren, badauzka. Heda, heda, heda.” (E 804, 1902-11-14 “Gure Almanaka” art.).

Ironiazko errepikapenen bidez egileak bere jarrera erakusten digu, adibidez, "Lege eta lege" izenburudun artikuluan:

"Egungo nahaskerietarik edozoin aipa zozute; berehala ihardetsiren dautzu jaun edo jaunskila batek: "Legea da; ez da hor harat hunatik". / Hau lege, hura lege, oro lege dituzte. Bertze lanik ez dutela erran zinezake, lege egiten eta lege zain baizik. Oro baino gehiago da legea. Zer diot? *gehiago*? Legea da bakarrik ororen buru, esku, zango, gider" (E 830, 1903-5-22).

Sinonimia eta erredundantziak -hitza ez baina esanahia errepikatzen dutenak-, ideiak iltzatzeko darabiltzanak -kasu honetan esanahia ñabartze eta erritmo bidez egiturez baino gehiago-, anafora, paralelismo edo kiasmoarekin elkartzen ditu. Sinonimia oso aberatsa du, adjektiboena barne; etsaien kontra-ko kalifikatibo bortitz, laidogarri, hitz itsusi eta itsusgarrietan nekez duke parerik. *Urde* eta holakoak haizu zaizkio etsai gorrotagarrien kontra direlarik.

"Humbert delako jaun ohoin ministro ohiak (...)" (E 780); "deputatu abere" (E 784, 1902-6-27); "itxura leguneko alimale zikin hoieri" (EO 10, 1906-3-9, EH: "Imitorioak").

"Norbeitek egun hautan erraiten zaukun, *Combes* hortaz eta horrekilakoez mintzatzean, arduregi ez ote ditugunez ahoan *urde* eta *urdekeria* eta holako hitz itsusi batzu." (EO 4, 1905-1-27, "Nor noren alde?")

Esan gabe doa, handik aitzina are jaulkitzenago zituela. Anafora eta epifora, polisindeton (bereziki *eta* juntagiluaren errepikapena kontaezan) eta anadiplosiak ederki baliatzen ditu. Hona nola egileak, bere ikuskera ezkorra adierazteko, lokuzio bat oinarri hartuta garatzen duen anadiplosia hirukoitz bat behezko gradazioan:

"Alta bada urteak ditu, buruz behera goazila, gero eta apalago: zalditik astora, astotik urdera, urdetik lurrera" (EO 4, 1905-1-27). (Cfr. Azkue, *Euskalerrriaren Yakintza* III, Modismos, Mal: "Zalditik astora ta astotik lurrera", de mal en peor; (...) (B)).

Antitesi erretorikoak ere eraikitzen ditu, anafora, paralelismo, kiasmoarekin lotuz. Egitura simetrikoak noiz lerroan ezartzen ditu (paralelismoa), noiz kurutzatuta (kiasmo); joskura maitatua azken hau:

"Bertze orduz aberatsak ziren deputatu. Orai aldiz deputatuak dire aberasten..." (E 315, 1893-6-9, Petite Chronique, "Deputatu zordunak").

Baina egitura simetrikoak asimetrikoekin aldizkatzen ditu. Hiriart-Urruti perpaus jostun jostakinari ez zaio aski perpausaren zati baten ohiko

hitzordena aldatzea, perpaus osoa eta diskurtsoa du itzulikatu nahi. Ahozko mintzairaren eite duten anakolutoak, enfasi adierazleak baliatzen daki. Adibidez, “Bertzalde anitzek eman zioten Kanboarrek boza”, Diharasarriz esana (E, 775, 1902-4-25). Hiperbaton batzuk aski irakurterraz eta gozoak dira, baina beste batzuk harrigarriak lantzen ditu zenbaitetan, atzekoz aurrera zatika irakurrita hobeki ulertzekoak, edo hain bihurtzekoak, non irakurlea hitzak bere tokian kokatzera eta hitz andanaka irakurtzera behartzen baitu:

“*Barthou* ministroa Oloronen baizik ez da nausitu zinezko tzarrik” (EO 19, 1906-5-11). (Hots: zinezko tzarrik ez da nausitu Oloronen *Barthou* ministroa baizik).

“miarritzar eta hura iduri ziri kazetari franximan hatsa gezurra diotenen arabera” (E 840, 1903-7-31). (Irakur bedi: “hura iduri franximan kazetari ziri hatsa gezurra diotenen arabera”. Edo: “hura iduri kazetari franximan ziri hatsa gezurra diotenen arabera”).

J. Etxeparek Hiriart-Urrutiren hitzordena eta estiloaren gako batzuk atzeman zituen. Esaterako, batzuetan hondarrera –esaldi, paragrafo nahiz testuaren azkenera– jaurtikitzen zuela sartu nahi zuen pindarra eta noiztenka irakurlea hitz-andanak ulertu nahian ibilarazten zuela, “gogoa dilindan, bainan asmatu nahiarekin ernatua uzten zautzula, irriz”; “gogomenen jauzte lilluragarriaz” Hiriart-Urruti nagusi zaiola Adémari ere esaten digu<sup>9</sup>. Hona hemen adibide bat, “Beribil” artikuluko, non hitza eta silaba ustekabeen moztuz “gogomenen jauzte lilluragarri” hori gertatzen den:

“Bi urtez, egunetik has, luma hunek hemen ez du izkribatuko ez *auto*, ez *oto*... are gutiago *astomobil*; bainan ba beti *beribil*. Hitzeko gizon ez bagira, zuek oroitaraz. Berri heltzalek, behar orduan, guk bezala egin balezate, lan bat gutiago guretzat *otom...uthur* eta asto buztan mozten artzea.” (E 1151, 1909-4-30).

Ustekabeko aldaketa zorrotz, irrigarri edo ironiazkoak bukaeran maizago egin ohi ditu, eten puntuen ondoren. Adibidez, gobernamentuko etsaiez dio:

<sup>9</sup> “Ahopaldi nasaia zituen laketenik; sekula kasik ez biga, datxikola, josturaz berdin. Batzutan bospasei alditaraino hatsa artetan hartuz, eta zu begia zabalik hari beha, ondarre-rat aurdikitzen zuela sartu nahi zautzun pindarra; bertze batzuetan dena mami, eraskitza eraskitzari jarraikaraziz joriki, burua ezteki joaren ariaz, betetzen zautzula eta argitzen; noiztenka pilota batzu bezala hitz andana bat erainik, xingilika heien artean ibilarazirik, gogoa dilindan, bainan asmatu nahiarekin ernatua uzten zautzula, irriz.” (J. Etxepare: 1915; in P. Charritton: 1984: 171-172). “Bego haatik, ahopaldiaren itzulika aberats bezain malguaz, hizkuntzaren nasaiaz, zirtoz, erran zuhur oroitgarriaz, gogomenen jauzte lilluragarriaz, alaitasunez eta euskaldun zumoz, bego hazpandar semea nausi. Oraikoan Hiriart-Urruty dago gure lurreko idazleen errege (...).” (Etxepare: 1925; in P. Charritton: 1984: 231).

“Ez dute nahi jaun garbi horiek ohointzarik... bertzek egitea.” (E 860, 1903-12-18).

Esaldi bukaerak oso landuak ditu egitura eta neurkera aldetik; maiz esaldi paralelistikoak dira, justaposizio bidezko esaldi biribilak, zalantzarik uzten ez dutenak eta sententzia estilokoak, mezua azpimarratzeko.

4.4. Pentsamentu-figuren multzoan sartu ohi dira hitzaldi osoa hunkitzen eta esandakoaren egia baieستeko xedea dutenak, eta hitzez hitz nahiz irudizko adieran irakur daitezkeenak (Reboul: 1993: 55-56). Horietako anitzek irakurlearekin elkar aditzea eta bat egitea bilatzen dute. Eta, hain zuzen, irakurlearekin bat egiteko hizkuntz baliabide ugari ustiatzen ditu Hiriart-Urrutik, adibidez datibo etikoa, kontaeran ere badarabilena. Orduko neskatxen apainzaletasuna maiseatuz, pasadizo bat kontatzen du, umorez, lehen mintzaldi baten amaieran:

“Delako neskat...barkatu, *andere* gazteak, eliza pesta-buru eguerditan, oroiturik jan behar zuela, eta pitxerrean ur hutsa baizik ez izanki, bere gain bizi dena omen baita, zer egin dautzu? / Goizeko apaindura kendurik arratsaldekoaren jauntzerat artean, zalu eta arin, bi lur-sagar xuritu daitzu (baitzitu-ten hek); eta joan zautzu atxit erne, oinetakoek krik-krik egiten diotela, auzoko botiga batetara: “Egun on. –Bai zuri ere. Zer plazer zinuen?. –Lur-sagarren finitzeko, *bi sosen urina* ” (EO 33, 1905-8-18, “Bi sosen urina” art.).

Zinez ugariak dira kazetariaren subjektibotasuna irakurleari aditzera ematen dioten oihu-hitz eta adierazpideak, hizketakoak: harridurazkoak (*Hauxe da mendea!*); haserrea erakustekoak (*Zer mila sorgin!*; *Karako!*) edo mesfidantzazkoak. Adibidez:

“Ororen ona bilatu behar luke lege-egileak, alderdikari izan gabe. Aieia, putil, baduk hoberik!” (E 825, 1903-4-10).

Hipotiposia, edo gauzak aurrean ikusiko balira bezala konta eta, beraz, hunkitu nahi duen figura, kroniketan baliatzen du, kontaera nahiz deskripzio biziak eginez. Aipagarria da Ravachol anarkistaren gilotinatzearena (“Hil dute”, E, 1892-7-15; ik. I. Caminoren *Gontzetarik jalgiaziak*, 123-125). Alegoria batzuk ere lantzen ditu, adibidez, *Eskualduna* kazetaz mintzo, nola 20 urtetan hazi edo “gizondu” den erakusteko kuia eta ezkurrarena darabil, hain zuzen Zaldubiren alegia batetik hartua. Atsotitz edo erran zuhurrak, ordea, usu baliatzen ditu (biltegi aberatsa ere bazuen, bernes, frantses eta gaztelaniazkoak barne) gauzen aterakizun morala finkatzeko. Baina erranak bihurtzen ere zituen, edo erranetarik adierazpideak sortzen.

Ironia da errege Hiriart-Urrutiren pentsamentu-figuretan, orain arteko adibide anitzetan ikus daitekeenez. Berebiziko indarra ematen dio egilearen luma oldarkorrari. Maiz testu zati osoak, are artikuluko osoak hunkitzen ditu, izenburuak barne. Mota nagusienetarik bat beste norbaiten diskurtsoa edo haren oihartzuna jasotzen duena da, eta etsaia frantsesez mintzo denez, frantsesaren erabilera ironikoa ageri da ardura. Beste batzuetan ironia alusioarekin elkartzen da: “Gaineko hura” maiz erabili ondoan Jainkoaz mintzo dela, “Nor da azkarrena?” artikuluan “*Gaineko Prezident*” hura aipatzen du (E 314, 1893-6-2). Maltzurkeria poxi bat bazuen frankotan Hiriart-Urrutiren ironiak, insinuazioz betea.

“Hiruetarik guretzat orai arte *gizonena* Morroxko-Harriague; *jakintsunena*, Legrand; eta Pradet-Balade,... nola erranen dut? –*Gazteena*.”

Ateraldi hau zela eta, solas bat altxatzen diote eta Hiriart-Urrutik erantzuten:

“*gazteena* zela, irri egiteko solas bat zen hori”, “holako bat erraten ahal da, gizon bat gogokoa ez denean. Behar ere ba, holako gatz-biper poxi artetan; bertzenaz lokar ginintazke solasa hasi orduko berehala oro, kazeta egile eta irakurtzale.” (E 779, 1902-5-23).

Ohargarriak dira ere perifrasi alusibo edo eufemistikoak, edo itsusgarriak (adib. Berdolyz, EO 21, 1905-5-26), eskatologiarekin ikustekoa dutenak, etsaien kontrako diskurtsoan.

“Garbiki edo zikinki, ez nauke nehindik neholere hemen erran gabe, gogon dudana; burutik behera egiten daukute bertze hura” (EO 33, 1907-8-16).

Alabaina lizentzia da Hiriart-Urrutiren irakurleekiko jarrera eta ezaugarrietarik bat, hots, irakurleen beharriak zaurtzeaz gogoetatu gabe “garbiki mintzatzea” –edo itsuski, noiz nola–. Ironia irri edo umorezkoa da beste batzuetan eta trufa gozoaren erakusburu politik bada. Ironia hotz itxurakoa edo sarkasmoa ere ez da eskas, gontzetarik jalgiarazten duten gauzei hotz eta motz, zorrotz ihardestea ez baita gutiago eragingarria. Sarkasmoa beste ironia motekin nahasirik ageri da maiz. Jaun politikari sozialista *fraxximant progressista* batek Euskal Herrian gaindi ibili ondoan esandakoez dio:

“Hortarik beretik ageri da, zoin giren gibela, Eskual-herrian. / Beharrik dire munduan jaun argitu zenbeit, oro dazkitenak.” (E 790, 1902-8-8, “De Musculdy à Saint-Esteben”).

Umorea, irri eragingarria edo bestelakoa, irakurleekiko jarrera eta persuasio indar handikoa da, konfiantza ematen baitio irakurleari eta hau hizlariaren alde errazago jartzen. Hortakotz ditu Hiriart-Urrutik etsaiak eta haien

legeak usu irriegangarri uzten (*ridiculum*). “Makhila khen?” artikuluan makila debekatu dutela eta –zolan burdina duelako estakuruan– kazetariari irria dario euskaldunen makilazaletasunaz mintzatzean, baina hondarrean barreagarri uzten du debekua:

“Zer debru nahuzue egin, jaun jujeak, eskualduna eta makila elgarretarik ezin bereziak balinbadire, kasik... senar-emazteak bezala? (...)”. (Bukaeran) “Berritan hemen aipu ginuen Donapaleotik auzo herri batean gauaz merkatutik etxerat zoazilarik bi gizon, batek bertzeain kokotseko larrua eta ezpain puska ausikian ereman zazkola. Handi da tribunalak ez baitu ezarri legea: merkaturat doazila eskualdunak... hortzak etxean utzirik... *Armes défendues...*” (EO 52, 1905-12-29).

Azkenik, irakurleekin bat egitekoak diren prozedura estilistikoak ausarki darabiltza, bereziki galdera erretorikoak, *communicatio* (“Badakizue...?”, “Erradazue?”, “Entzun duzue...?”) eta dialogismoa. Azken honetan, euskal kazetaritzan orain baino lehen askoz erabiliagoa (Kirikiño, Lizardi etab.), kazetaria irakurleari (“Manex”) mintzatzen zaio zuzenki, alegia hizketan ari, honen gogoia erne atxikitzeko.

“Arto bat osorik iresteko aho bat idekirik hor zagote so, bi begiak ezin aski zabalduz: “Nola hori, Manex? Errazu berriz.” (E 840, 1903-7-31).

5. “Ahopaldi nasaiak zituen laketenik; sekula kasik ez biga, datxikola, josturaz berdin”, idatzi zuen J. Etxeparek (1915; Charritton: 1984: 171). Eta arrazoi du perpaus luze eta laburren edo egituren aldizkatzea, bai eta hats luzeko ahopaldiak zituela maiteenik esatean, lehen mintzaldietako estiloari dagokionez batik bat. Adémak kazetaren buruzagigoa uztearen kariaz Etxeparek hartaz idatzi artikuluan kritikoagoa ageri da Hiriart-Urrutiri buruz honen hilondokoan baino. Hain zuzen, “ahopaldiaren itzulika aberats bezain malguaz” eta itzul-inguruz Adémari nagusi zaion arren, “Ademaren erakaspena bakunago da, itzul-inguru gutiagorekin, eta orobat berdin mamitsu, izaitekotz mamitsuago”. “Zer elasturia batzutan, mami gutisko gordetzen bazuen ere azalak!” zioen Hiriart-Urrutiz jakintza argitua maite zuen Etxeparek. Are gehiago “noiztenka nahasixe zabilako ustearekin gelditzen ginen” (1915; Charritton: 1984: 231). Axularri buruzko idazlanean ere perpaus nasaien kontua lehenagokoena zela zeritzon: “Orai labur nahiago dugu izan, kasik motz”; “Eskualduner ginarritsu eta labur ederrago zaiku solasa” (Charritton: 1984: 244).

Baina batzuetan Hiriart-Urrutik perpaus eta paragrafo luzeak laburrekin aldizkatzen ditu, eta, azalpen luzexkoen ondoren, irakurleei zuzenduz, bere komentario laburrak egiten. Eta gero kontaeran estilo eliptikoa darabil maiz.

Bestalde, nahiz berrien kontalari nahiz hizlari ari zaigun, *brevitas* delakoa erranekin eta sententzia estiloarekin loturik ageri da. "Blancaire apeza" artikuluan dio:

"Mahastidun denak ikasi nahi; eta ikasteko ikusi." (E 828, 1903-5-1).

Estilo lakonikoa darabil agitazio idazkietan ("Larresoroko Semenariaoa", EO 50 1906-12-14). Edo kazeta edo almanaka heda eta saltzeko dei egiterakotan. Honelako batean, esaldi luze baten ondoren, dio:

"Galda gogotik, eta heda. Deno, balia." (E 805, 1902-11-21, EH, "Gure Almanaka").

Gero Hiriart-Urrutiren prosak erritmo harrigarria du, perpaus, hitz andana eta hitz luzeago eta laburragoen aldizkatzeak, eta, beraz, etenek sortarazia; edo perpaus barneko eta perpausen arteko hitzordenaren antolaketak (perpaus osagaien higikortasuna, kola luzeago eta laburragoak, egitura paraktikoak, egitura simetrikoko eta disimetrikoko txandaketzea). Bai eta hitz andana neurtu errimatuetan ere, edo esamolde egin biribiletan, hoskidetzak eta neurkerak, esanahiarekin jokatuz, sortua. Erritmo mota hau ez da, halere, Axularrena bezalakoa, hedatu eta orekatua, hitz andanaka etendua baizik.

6. Azken hitz, ondorio gisa. Hiriart-Urrutik mende laurdenez *Eskualduna* hazi, euskara onean biziari eta genero berriak ekarri dizkigu. Eta, batez ere, euskal prosa berritu, zalutu eta erritmotsuago bihurtu du, kazetari prosari eredu bat eskainiz.

Kazetari- eta idazle sena zituen batera. Jendearen ahoko mintzairaz eta erretorika jakintzaz baliatuz, diskurtso erretorikoaren elokuzio alderdia landu zuen bereziki. Hizkuntzaren adierazpide zaharrak biziberritu eta gaztetu zituen, baina bazekien ere kazetaritzak joskera eta forma ohargarriak behar dituela eta hizkuntzaren erabilera ohikoa sormen eta berritasun sen, aldakor-tasun, umore eta graziarekin ezkondu zuen.

Euskararen adierazkortasun eta libertateaz jabetuta, euskal esamolde jator eta bereziei gogoia emanik, joskura berriak nola sor, pikoak ontsa nola atzeman zerabilen gogoia, idazte lanean gozatuz eta oroz batean bere hatsa ahi-tuz. Egungo euskal kazetari nola idazleek, euskara berez bere jar dadin edo gaztelania-frantsesetarik bereizi nahi luketenek, balukete haren hiztegi jori eta bizi, joskera zalu, figura, hots eta erritmoaren senaz den bezainbatean zer ikas.

## Laburdurak eta ikurrak:

E: *Eskualduna* ; EO: *Eskualdun Ona* ; EH: “Eskual-Herria” saila.

/: paragrafoaren bukaera eta hurrengoaren hasiera adierazten du.

## BIBLIOGRAFIA

ALTZIBAR, X. (2001), “Irudizko lokuzioak Hiriart-Urrutiren kazetalanetan”. *Litterae Vasconicae*, 8, 161-224.

— (2003eko). “Erretorika gramatikaren gainetik: Hiriart-Urruti adibidetzat”, P. Lafitteren sortzearen mendumuga, *Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra*, 2001eko irailaren 20-21ean. Baionan. *Euskal Gramatikari eta Literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian*, Iker 14 (1), *Euskaltzaindia*, Bilbo, 2003, 81-118. orr.

AZKUE, R.M. (1969), *Euskalerrriaren Yakintza*<sup>2</sup>, III, Madril, Espasa Calpe.

CAMINO, I. (1994), *Gontzetarik jalgiaraziak*. Klasikoak, EEE. Donostia.

CASENAVE, J. (1997), *De l'article de presse à l'essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare*. Thèse de Doctorat d'Etudes Basques. Université Michel de Montaigne-Bordeaux III.

CHARRITTON, P. (1982), “Lacombe eta Broussainen arteko elkarridazketa”. *Bulletin du Musée Basque*, 98. Lacombe Broussaini, 108 (1985), 109; 111.

— (1984), *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak*. Elkar, Donostia.

— (1986), “Fonds Lacombe du Musée Basque. Les lettres de Pierre Broussain à Georges Lacombe (3-10-1903 / 9-4-1920)”. *Bulletin du Musée Basque* 111, bereziki 1, 2, 3, 7, 8.

DIAZ NOCI, J. (1994), “Gerra aurreko euskal kazetaritza eta hizkuntz-ereduak”, *ASJU XXVIII-3*, 1994.

ESKUALDUNA: 1887-1903; 1908-1915. *Eskualdun Ona*: 1904-1907.

ETXEPARE, J. (1915), “Jean Hiriart-Urruti kalonjea (1859-1915)”. *Ikus Charritton*, 1984, 171-175.

— (1925), “Jean-Blaise Adema jauna (1861-1936)”. *Lecaroz*, 1925; in *Charritton*, 1984, 225-233.

ITHURRY (l'Abbé). (1895) (1979), *Grammaire Basque. Dialecte Labourdin*. Imprimerie A. Lamaignère, Baiona. 1895. Hordago<sup>2</sup>, Donostia 1979.

LAFITTE, P. (1944), *Zer eta zer*, Collection "Aintzina", Baiona.

— (1971), *Jean Hiriart-Urruty. Mintzaira, aurpegia: Gizon!*, Jakin (hitzaurrearekin). Jakin, Oñati.

— (1972), *Jean Hiriart-Urruty. Zezenak Errepublikan*. Jakin, Oñati.

MUJICA, G. (1915), *Eskualduna* 1493, 1915-12-10.

REBOUL, O. (1993), *La rhétorique*. P.U.F., Paris.